


FLEXU

CIRCUITO DE ARTE CONTEMPORÁNEO EN NAVARRA
ARTE GARAIKIDEKO ZIRKUITUA NAFARROAN



AURKIBIDEA

Aurkezpena	3
Fluxu, fluxua.....	4
Artistak.....	5
Taldea	6
Mapa	7
Ohikoa	8
Egitaraua	9
San Adrián ▶ Txaro Fontalba.....	10
Viana ▶ Txuspo Poyo	11
Zangoza ▶ Estitxu Arroyo	12
Bera ▶ Gonzalo Nicuesa.....	13
Iruñea ▶ Prestakuntza Jardunaldia.....	14
Azkoien ▶ Maddi Barber eta Marina Lameiro	15
Altsasu ▶ Elba Martínez.....	16
Tafalla ▶ Elena Goñi	17
Elizondo ▶ Álvaro Gil Soldevila	18
Corella ▶ Taxio Ardanaz	19
Gares ▶ Carlos Cánovas	20
Iruñea ▶ Itxiera Jardunaldia.....	21



AURKEZPENA

FLUXU Vianako Printzea Erakundea – Kultura Zuzendaritza Nagusiaren programa berria da. Herritarrei arte-sorkuntza garaikidea ulertzeko eta gozatzeko gakoak emateko sortu da, lurralde osora eramateko halako proposamen batzuk eskuarki Iruñean eta haren inguru hurbilean programatzen direnak, bertan kokatzen baitira arte garaikideko ekitaldiak sustatzen dituzten erakunde gehienak. Periferiak eta landa-inguruneak lanerako baldintza atseginagoak eskaintzen dituzte, naturatik hurbil daude, egiteko modu berriei bide ematen diete eta eztabaida berriak sortzen dituzte.

FLUXU, beraz, arte garaikideko zirkuitu-proposamen bat da, lurralde osorako, tokiko erakundeen lankidetzarekin eta tokian tokiko hezkuntza-sareko eta elkarteen sareko eragileekin eratua, eta bideratua dago, ez bakarrik artea erakustera, baizik eta, batez ere prestakuntzara, bitartekaritzara eta hezkuntzara, xedea izanik sorkuntza garaikideak behar dituen publikoak sortzea; izan ere, interes orokorretatik urrun dagoen alor elitistatzat jo izan da ez gutxitan.

Programak sustatu nahi du jendeak eta artelanak modu intimu, akuilatzaile eta eraldatzaile batean elkar topo egitea. Artearen alderdi sozial eta kolektiboa bultzatu nahi du, gozatu, entzun eta eztabaidatzeko espazioak sortuz. Arras helburu garrantzitsua da praktika artistiko garaikideetan interesa duten eragileen komunitate egonkor bat eratzea, tokian tokiko konplizeak edukitzea, beren herrietan kalitatezko arte garaikideko programazio polifazetiko eta berritzaile bat susta dezaten, leku bakoitzarekin elkarriketan arituko dena, Nafarroa osora iritsiko dena eta denboran segida izanen duena.

Azken batean, arte plastiko eta ikusizkoen forma garaikideei balioa eman nahi die emoziorako, pentsamendu kritikorako eta gizarte-loturarako tresna diren aldetik. Izenak iradokitzen duen gisan, gure erkidegoko lurraldea zeharkatuko duen ideien eta harremanen emari bat da.

Rebeca Esnaola Bermejo,
Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria.

FLUXU, FLUXUA

Mendiak eta lautadak, herriak eta hiriak zeharkatzen dituzten ibaien modura, **FLUXU** programak (fluxus latinezko hitzak inspiratu du izena) helburu du artelanen, ideien eta esperientzia estetikoek fluxua erraztea Nafarroako lurraldean.

Haziak oso urrun eramaten dituen haizeak bezala, **FLUXU**k iruditeria berriak erein nahi ditu eta toki bakoitzerako pentsatu den proposamen baten gainean partekatutako bizipenen fruituak bildu. Hamar herrik osatuko dute lehen edizio honen sarea eta hamaika artistak hartuko dute parte.

FLUXU


Nafarroan barna programa antolatzeko bi ekintza-ildo edo bi eskala definitu dira. *Artelan batekin solasean* ekintzak obra nabarmen bat erakutsiko du udalerriko espazio batean, obrari ahalik eta baldintza onenetan begiratu ahal izateko aukera emanez. Proposatzen den jolasa da lana patxadaz behatzea, sentsazioak, hausnarketak edo oroitzapenak agertu arte. Bestaldekik, *Erakusketa hedatuak* esku-hartze artistiko bat aurkeztuko du gune batean, arkitekturari, hurbileko paisaiari edo herrian bizi diren pertsonen entzun nahian. Kasu honetan, jendeari gonbit egingen zaio artista baten unibertsoan barna ibiltzeko tokian tokiko oihartzunak adituz.

Sinetsita artea bakarka esperimenta daitekeela eta, aldi berean, topaketarako gunea sortzen duela, proposamen bakoitzak bitartekotza-jarduerak eskainiko ditu. Horri esker, ikusleak obren inguruan biltzen ahalko dira, ekitaldi sozialak osatuz non ahots guztiak egonen baitira.




ARTISTAK

Argazkiak: Rocío Wittib, 2024





MAPA



OHIKOA

Ohikoa egunerokotasunetik sortzen da, egunez egunetik. Gutako gehienok gure bizitzak aurkikuntza txikiekin eraikitzen ditugu, behin eta berriz errepikatzen ditugun keinuekin. Izan ere, aukera handiagoa dago gure askatasuna lasai eta eroso hazteko horiek bezalako inguru hutsaletan. Horretaz ohartzeko, demagun guda bat hasten dela; pentsa dezakegu egoera horretan batez ere ohikoa dela arriskuan dagoena eta suntsitzen dena, eta, aitzitik, bake garaietan zaila dela gure bizitzan gertatzen diren arkitektura ikusezinari antzematea.

Ohikoa belaunaldiz belaunaldi transferitzen den kultura ondarean ere adierazten da, gure artean komunikatu ahal izateko gakoak dituen iruditeria baita (nahiz eta denbora pasa ahala, iruditeria horren zati batzuk ahazten diren eta ikono berriak sortzen diren).


Gizartearen arloan, *ohikoa* egoten da batez ere pertsonak elkartzen dituen horretan, bestearengana, aniztasunera irekia egotea errazten duen horretan. Elkarren arteko lotura prozesu horretan, *ohikoa* sendotzen da. Eremu horretan hitza nagusitzen da, eta harekin batera, kontrakoa, hots, entzutea, eta, ekintzarako tarte bat ere badago.

FLUXUren lehendabiziko edizio honetan, *ohikoaren* ideiak, dituen inplikazio ugariekin, proposamen desberdinen arteko haria eskainiko du, baita hausnarketarako eremu emankorra ere. Aldi berean, egitaraua gonbidapena izanen da topaldia ospatzeko, baita konpainia ona eta esperientzia artistikoaren bidez egindako trukea ere. Gure asmoa da *ohikoa* praktikara, komunitatera eramatea.

Alexandra Baurès, FLUXU.1aren komisarioa

EGITARAUA





Txaro Fontalba

7-27 URRIA ➤ ARTELAN BATEKIN SOLASEAN


Bere hegaldiaren airean

Txaro Fontalbak (Iruña, 1965) *Bere hegaldiaren airean* artelana erakusten du; lan horretan goraka doazen Ama Birjinaren figurei lotutako iruditeria deseraikitzen du. Estatua erlijiosoaren xehetasunak forma geometrikoekin edo lore-formekin konbinatuz, artistak hainbat diseinu sortu ditu horman zabaltzen diren paper pintatueterako.

18 URRIA ➤ LANTEGIA

Urriaren 18an (ostirala), 17:30etik 19:30era, **Txaro Fontalba** artistak *Zer geratzen da amarengandik gure garaian?* lantegia emanen du. Parte-hartzaileak, norberaren esperientzietatik abiatuta, amatasunari buruzko ideiak edo kontzeptuak atzematen dituzten irudi edo hitzez mintzatuko dira elkarrekin. Ondoren, material horiek erabiliko dira sorkuntza plastikoari buruzko ariketa txiki bat egiteko.

Doako lantegia, helduei zuzendua.
Izen-ematea www.sanadrian.es helbidean.



© Txaro Fontalba, VEGAP, Pamplona/Iruña, 2024

Txuspo Poyo

17 URRIA
17 AZAROA > ERAKUSKETA HEDATUA

Pendulua eta kanpaia. Pendulu eta kanpaiaren arteko abentura erromantiko bitxi bat; maitasuna da basakeriaren kontrako arma bakarra

Txuspo Poyok (Altsasu, 1963) instalazio artistiko bat aurkezten du, eta izenburua, berez, ipuin laburra da. *Pendulua eta kanpaia. Pendulu eta kanpaiaren arteko abentura erromantiko bitxi bat; maitasuna da basakeriaren kontrako arma bakarra.* Esku-hartze honetan, Vianako eliza desakralizatuko zurezko zorua arbel handi bat bihurtuko da eta bertan Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren hogeita hamar artikulua idatziko dira.

Urriaren 17an (osteguna), 12:00etan, izanen da inaugurazioa eta bertan artista egonen da.

ARTÍCULO 1
TODOS LOS SERES HUMANOS NACEN LIBRES E IGUALES EN DIGNIDAD Y DERECHOS Y, DOTADOS COMO ESTÁN DE RAZÓN Y CONCIENCIA, DEBEN COMPORTARSE FRATERNALMENTE LOS UNOS CON LOS OTROS.
ARTÍCULO 2

Estitxu Arroyo

24 URRIA
17 AZAROA > ERAKUSKETA HEDATUA

Gauza txikiak. Ohikoaren inbentarioa


Estitxu Arroyoren (Villaro, 1973), erakusketak *Gauza txikiak* du izenburua. *Ohikoaren inbentarioa* gonbidapena da gure egunerokotasuna osatzen duten elementuak eta objektuak behatzeko. Instalazio honen xedea da ikustaraztea oharkabean gertatzen dena, baita ohikoaren edertasuna ezagutzera ematea ere.

Inaugurazioa dela eta, urriaren 24an (osteguna), 19:00etan, Estitxu Arroyok *Gauzeekin egotea* ekintza burutuko du.

Zangoza X
Vallesantoro Jauregia Kultura etxea



© Estitxu Arroyo



Gonzalo Nicuesa

12 AZAROA
7 ABENDUA > ARTELAN BATEKIN SOLASEAN

Torso Belvedere

Gonzalo Nicuesak (Iruña, 1976) *Torso Belvedere* aurkezten du, Vatikanoko bilduman dagoen izen bereko eskulturaren gaineko fotograbatuaren triptiko bat. Pieza honek jorratzen du pertsona batzuek zeharo ederra den artelan baten aurrean sentitzen duten emozio sakona, “Stendhalen sindromea” deritzona. Obra klasiko honen irudia erreproduzitzean, artistak bereganatu egiten du eta, halaber, ikusleekin partekatzen du.

12 AZAROA > LANTEGIA

Gonzalo Nicuesa *Pop bertsioak* lantegiko irakaslea izanen da azaroaren 15ean (ostirala), 17:30etik 19:00etara. Collage teknikaren inguruko jolasa proposatuko du, eskultura klasiko, pop abestien titulu eta kolorezko paperetatik abiatuta.

Doako lantegia, adin guztietako jendearentzat.
Izen-ematea, hemen: <https://bera.eus>




© Gonzalo Nicuesa

20 AZAROA ➤ PRESTAKUNTZA JARDUNALDIA

Topaldia artelanarekin

Topaldia artelanarekin izenburupean, jardunaldi honek proposatzen du arte garaikidea lurraldean zabaltzeari loturiko esperientziak partekatzea, baita artelanarekin kontaktuan egoteari loturikoak ere. Parte-hartzaileak: Karen Tanguy, bildumaren eta Frac Akitania Berria zabalkundearen arduraduna; Jyotima Barrenetxea & Oihane McGuinness, FLUXUaren bitartekariak, baita *Artelan batekin solasean* zikloko artistak ere.

Ordutegia: 10:00etatik 13:00etara.
Izen-ematea, hemen: museo@navarra.es



Maddi Barber Marina Lameiro

26 AZAROA
19 ABENDUA ➤ ARTELAN BATEKIN SOLASEAN


Paraíso

Maddi Barberrek (1988, Lacabe) eta **Marina Lameirok** (1986, Iruña) *Paraíso* filma aurkeztuko dute (22 min.), Nafarroako Pirinioaurreko Artzibarko baso baten erretratua, desagertzeaz baitago. Irudiak hartzeko teknika desberdinen bidez, bertako biztanleen eta zuhaitzen arteko harremanari buruzko informazioa biltzen da; harremana dokumentatzen da zuhaitzak moztu aurreko egunetan.

Abenduaren 14an (larunbata), 19:00etan, topaldia antolatuko da artistekin.



© Maddi Barber, Marina Lameiro



Elba Martínez

16 ABENDUA
12 URTARRILA > ERAKUSKETA HEDATUA

Ekialderantz

Elba Martínezek (Iruña, 1974) *Ekialderantz* titulua aukeratu du erakusketarako; bertan argi naturala elkarrizketan arituko da bere oihal-, argazki- eta pintura-piezekin. Lan honen funtsezko osagai bat hitzaren erabilera da; horren bidez egunerokotasunaren berezitasuna atzeman nahi da.

Urtarrilaren 8an (asteazkena), 18:30ean, **Elba Martínezek** *El pajarito que encontró su miga* (*Bere mamia aurkitu zuen txoritxo*) bere poema-liburuaren testu batzuk irakurriko ditu, erakusketaren bukaera dela eta.



© Elba Martínez

Elena Goñi


10 URTARRILA
16 OTSAILA > ARTELAN BATEKIN SOLASEAN

Marcos

Elena Goñik (Iruña, 1968) *Marcos* izeneko obra erakutsiko du (olio-pintura mihise gainean). Obra honetan, pintoreak erretratu korala egin du, zeinetan taldearen kideak ez baitira garrantzitsuenak, baizik eta esandako hitzekin batera doazen begiradak edo aurpegi-adierazpenak.



© Elena Goñi



Álvaro Gil Soldevila

16 URTARRILA
13 OTSAILA > ERAKUSKETA HEDATUA


Hondar-konstelazioetan

Hondar-konstelazioetan, **Álvaro Gil Soldevilak** (Corella, 1986) proposatzen du herriaren inguruan landare-hondakinak biltzea. Hondakin horietan ohol txiki batzuk sortuko ditu bi dimentsioko konposizioa osatzeko. Obra Merkatuko plazan egonen da erakusgai.

Proiektu honek parte-hartzea eta ekologia batzen ditu eta aurkezpena urtarrilaren 17an izanen da, ostirala, 18:00etan, artista bertan dagoela.



© Álvaro Gil Soldevila



Taxio Ardanaz

22 URTARRILA
21 OTSAILA > ERAKUSKETA HEDATUA


Pankartak

Pankartak izeneko erakusketan, **Taxio Ardanazek** (Iruña, 1978), martxei eta aldarrikapenei lotutako adierazpen modu hau aztertzen du. Pankarta bat ekoizpen testuala, plastikoa eta iragankorra da eta horren atzean beti talde bat egoten da. Horregatik, herriko Arte Eskolako Batxilergoko 1. mailako ikasleak inplikaturako dira erakusketari ekarpen kolektiboa egiten.

Inaugurazioa urtarrilaren 22an egingen da, asteazkena, 12:00etan, artista eta parte-hartzaileak bertan daudela.



© Taxio Ardanaz




Carlos Cánovas

29 URTARRILA
23 OTSAILA > ARTELAN BATEKIN SOLASEAN

Apenas

Carlos Cánovas (Hellín, 1951) argazkilariak *Apenas* serietik eratorritako triptiko bat aurkezten du, Ukrainan guda hasi zenean asmatu zuena. Irudi horiek iluntasuna ikertzen dute, haren positibatzeari eta esanahian, animalien eta gizakien artean dauden figura eskultorikoak erretratatzeko, eta gure amesgaiztoak gogorarazten dizkigutelako.

Otsailaren 7an (ostirala), 19:00etan, **Carlos Cánovasek** *Argia*, irudiak eta beldurrak hitzaldia emanen du udalaren liburutegian.



© Carlos Cánovas

26 OTSAILA > ITXIERA JARDUNALDIA

Topaketa honen xedea artxibo-kutxak ireki eta haien edukia partekatzea izanen da; izan ere, FLUXU.1 programaren parte-hartzaileek haietan sartu izanen dituzte beren ekoizpen onenak. Halaber, mahai-inguru bat egingen da, *Ohikoa ideia eta prozesu gisa* izenburupean. Alexandra Baurès komisarioa moderatzailea izanen da eta *Erakusketa Hedatuak* erakusketetako artistek hartuko dute parte.

Ordutegia: 10:00etatik 13:00etara.
Izen-ematea, hemen: museo@navarra.es